

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### SALCEDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Behin betiko onestea auzolanen ordenantza

Kontzeju honek, 2018ko ekainaren 6ko bilkuran, auzolanen ordenantza onartzeko espedienteari hasierako onespena eman zion. Espediente hori jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onesten da. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, osorik argitaratzen da indarrean sar dadin.

#### Auzolanen ordenantza

##### 1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da Salcedoko Kontzejuak antolatzen dituen auzolanak arautzea eta zehaztea.

Kontzejua da berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dituen toki erakundea, bere jurisdikzioa udalerrriarena baino lurralde barruti txikiagoan gauzatzen duena.

##### 2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, honako ezaugarri hauek ezartzen dira:

2.1. Honela definitzen da auzolana: kontzejuak jabetzan edo erabiltzeko esleituta dauzkan ondasunetan Salcedoko auzokoek edo/eta egoitzadunek egin beharreko lana; lan horren xedek izan behar du erabilera edo zerbitzu publikorako diren ondasunen eraikuntza, konpontze edo mantentze lanak egitea.

2.2. Borondatezkoak dira, eta helburu dute guztien onerako laguntzea, elkartasuna eta auzo harremanak sustatuz.

2.3. Auzolanetan egin daitezkeen lanak hauek dira:

a) Herri barruko bide publikoak eta horien osagai guztiak zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

b) Saneamenduak, estoldak, ur sare eta instalazioak, lorategiak, iturriak, putzuak eta garbitokiak konpondu, hobetu, garbitu, mantendu eta zaintzea.

c) Eraikinak eta gune publikoak zaindu, konpondu, hobetu, garbitu eta mantentzea.

d) Bideak, landa bideak, baso bideak eta bidezidorrak egin, konpondu eta zaintzea.

e) Mendi eta ibaietan garbiketa, sastraka-kentze eta birpopulatze lanak egitea.

f) Erabilera publikoko azpiegiturak edo ekipamenduak eraikitzea.

g) Ekipamendu publikoetako kalteak identifikatzea, bai eta egin daitezkeen hobekuntzak ere.

h) Udalerriko jaiak edo ekitaldiak direla-eta egin beharreko lanak; esaterako, azpiegiturak antolatu, muntatu eta desmuntatzea, eta garbiketa lanak eta antzekoak egitea.

i) Udalerrriaren onurarako beharrezko izan daitezkeen beste edozein ekintza.

### 3. artikulua. Deialdia

3.1. Administrazio batzarreko lehendakariak egingo du auzolanerako deia, eta deialdian bertan zehaztuko du zein lan egingo den, non eta noiz hasiko den eta noiz buka daitekeen, bai eta zein lanabes eraman ere.

3.2. Deialdiak bando bidez egingo dira, behar beste denbora lehenago, eta iragarki tauletan, web orrian eta ohiko beste hedabide batzuetan iragarriko dira.

### 4. artikulua. Auzolanak nola egin

4.1. Oro har, ezarritako orduan eta adierazitako lekura joanez hartuko da parte auzolanetan, bertaratutakoek egin beharreko lan motarako alde zuzen zehaztu diren lanabes eta makineria nork berarekin ekarriz.

4.2. Horretarako, auzolanen liburu ofiziala eramango da, non datu hauek adieraziko diren: deialdia, auzolanaren xedea, parte hartzaile kopurua, hasiera eta amaiera orduak, erabilitako lanabesak eta haien jabeak, eta auzolanean gertatutako gorabeherak.

4.3. Kontzejuak pertsona bat izendatuko du auzolanak antolatu eta egiteko, eta berak banatuko ditu pertsonak eta bitarteko materialak haiek modurik egokienean burutu daitezkeen. Auzolana obra konplexuago baten lanen zati bat egitean badatza, pertsona izendatuak modu koordinatuan lan egingo du administrazio batzarrak obra horretarako izendatutako arduradunarekin.

4.4. Adindun guztiak parte har dezakete, eta 16 urtetik gorako adingabeek ere bai, baldin eta beraien arduradunen edo tutoreen baimena badute.

5. Kontzejuak auzolanetan parte hartzen dutenak babesteko aseguru bat egingo du, zeinak auzolanetan gerta daitezkeen istripu arriskuak eta bestelako kalteak estaliko baititu.

6. Auzolanak ez dakar inolaz ere kontzejuaren eta auzolanean parte hartzen dutenen arteko lan harremanik.

#### Azken xedapena

Kontzeju honetako auzoko batzarrak 2018ko ekainaren 6ko bilkuran onartu zuen ordenantza; ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta halaxe jarraituko du aldatzea erabaki arte.

Salcedo, 2018ko azaroaren 23a

*Erregidore-lehendakaria*  
**DAVID GÓMEZ PÉREZ**